



# Presio atmosferikoa agerian jartzen

## HELBURUA


- Aireak presio atmosferikoa egiten duela ohartaraztea.

## MATERIALAK

- ◆ Erregela.
- ◆ Egunkaria.
- ◆ Edalontzia.
- ◆ Folioa.
- ◆ Ontzi bat urarekin.
- ◆ Beirazko hodi zuzen edo freskagarriak edateko lastotxo bat.
- ◆ Egositako arrautza.
- ◆ Erlenmeyer ontzia.
- ◆ Txiskero bat eta paper puska bat.

### Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.



**1. ESPERIMENTUA:** Mahai baten gainean erregela luze bat jarri. Bere luzeraren erdia baino gehiago kanpo izango da. Mahai gainean apoiatutako erregela zatiaren gainean egunkari baten orri handi bat zabaldu kontuz lautuz. Erregelaren beste muturra behatz batekin beherantz bultzatu. Zer gertatzen da? Zergatik?



**2. ESPERIMENTUA:** Bete urez puntaraino edalontzi bat. Paper batekin tapatu eta eskuekin edalontziaren ertzaren kontra estutu. Irauli edalontzia. Zer gertatzen da? Zergatik?



**3. ESPERIMENTUA:** Estali behatz batekin beirazko hodi zuzen edo freskagarriak edateko lastotxo baten mutur bat eta sartu ura duen ontzi batean. Kendu behatza. Zer gertatzen da? Estali berriro behatzarekin hodiaren muturra eta atera ontzitik. Zer gertatzen da? Zergatik?



**4. ESPERIMENTUA:** Kendu azala egositako arrautza bati. Eman sua paper zati bati eta sartu bizkor erlenmeyer ontzi batean eta jarri berehala arrautza erlenmeyer ontziaren ahoan bere alde kurbatuena beherantz dela. Behatu zer gertatzen den. Saiatu azaltzen zergatik gertatu den.